

“FRANCISCO ESCUDERO” NAZIOARTEKO I KONPOSIZIO SARIKETA

Akordeoi batentzat edo Kamara Musikako, akordeoia barne delarik, obrak

Antolatzaile:



HAUSPOZ, Euskal Herriko Akordeoi Elkarte
Apdo. 49
20120 Hernani, Gipuzkoa
Tel. 606 140 352 / 34 943 331 931
info@hauspoz.org

Babesle:



HAUSPOZ, Euskal Herriko Akordeoi Elkarteak “Francisco Escudero” Nazioarteko Konposizio Sariaketaren lehen edizioaren deialdia egiten du. Sari banaketa Zarautzen (Gipuzkoa) egingo da, 2008ko Irailak 11, ostegunean.

HELBURUAK

- Sariaketaren helburu nagusia zera da: Maila Ertaineko ikasleak, 13 eta 17 urte bitartekoak, interpretatu ahal izateko moduko obra berrien sorkuntza indartzea.

ESPARRUAK

- **Akordeoi bakarrarentzat sortutako obrak:** Obren iraupena, gehienez, 8 minutukoa.
- **Kamara Musikarako sortutako obrak:** Gehienez lau instrumentuz osaturiko obrak, horietako bat, gutxienez, akordeoia izanik. Gainontzeko musika tresnak flauta, saxofoia, klarineta, biolontxelo, biolina, gitarra edo perkusioa izan daitezke. Iraupena, gehienez, 10 minutukoa izango da.

OINARRIAK

- Partaideak edozein adin eta jatorrikoak izan daitezke.
- 2005eko urtarria baino lehen sortutako obrak ez dira onartuko.
- Aurkeztutako obrak, aurretik sortutako enkarguak izan daitezke, baina edozein kasutan ere, estreinatu gabeak eta argitaratu gabeak izan behar dute. Aurretik sarituak edota argirituak izan badira ere ez dira onartuak izango.
- Ez da tresna elektroakustikorik onartuko.
- Obrak, tekladun edo botoidun akordeoientzat idatz daitezke. Eskuineko eskuan gehienez 52 notako hedadura erabil daiteke (Do#-Mi), eta ezker eskuan 55 notakoa (Mi-La#).
- Hauspozek, saritutako obrak argitaratuko ditu. Epaimahaikideek hala baderitzote, saritu gabeak ere argitaratu ahal izango ditu Elkarteak.

- Hauspozek, ondorengo denboraldian antolatutako ekitaldien barruan, obra sarituen estreinaldia antolatuko du. Obren konposatzaileak, ekitaldi horretara gonbidatuak izango dira.
- Hauspozek, obra sarituak Arrasateko lehiaketetan erabiltzeko ahalmena izango du. Halaber, obren grabaketa, produkzio edo banaketa egin ahal izango du, konposatzaileek, horren truke, legeek adierazten duten irabaziak jasotzeko eskubidea izango dutelarik, eta ez besterik.
- Konposatzaileek obraren hiru kopia bidaliko dituzte, bertan bere izenik (edo bere nortasuna azal dezakeen zeinurik) ipini gabe, kartazal batetan sartuta. Kartazal honetan goitizen edo kode bat idatziko da. Honekin batera, goitizen edo kode berbera duen beste kartazal batetan sartuta, obraren izenburua, egilearen datuak, telefono zenbaki bat eta helbide elektronikoa bat bidaliko dira.
- Izenemate tasa: 30 €. Hauspozeko bazkideentzat, 10 €.
- Obrak aurkezteko azken eguna Irailak 1 izango da.
- Antolatzaileek, epaimahaikideek hala adostuz gero, sariak hutsik utz ditzakete. Kasu horretan, eta epaimahaikideak ados egonez gero, saria pertsona edo elkarte bati eman ahal izango litzaioke, bere lana edo ibilbidea kontutan hartuta.
- Sariaketan parte hartzeak, oinarrien onarpena dakar berarekin.

EPAIMAHAIA

- Epaimahaia Ramon Lazkano, Gabriel Erkoreka eta M^a Eugenia Luc-ek osatuko dute.
- Epaimahaikideen erabakiak apelaezinak izango dira.
- Epaimahaiaren ondoan, Miren iñarga, akordeoi pedagogian aditua, boto eskubide gabeko mahaikide bezala egongo da.
- Iñaki Alberdi izango da lehiaketako zuzendari artistikoa.

SARIAK

Sari bat egongo da, esparru bakoitzean.

- **Akordeoi bakarreko esparrua:** Diploma, 1.000 euroko diru-saria, obraren argitalpena eta estreinaldia.
- **Kamara Musikako esparrua:** Diploma, 1.500 euroko diru-saria, obraren argitalpena eta estreinaldia